

# LEHEN HEZKUN TZA



**ANDRAMARI**  
ZORNOTZAKO IKASTOLA

# Nolako **pertsonak** hezi nahi ditugu?

## **PERTSONA BURU IREKIAK, MALGUAK**

Jakin-mina duten pertsonak, esplorazioa eta ikerketa gus-tuko dutenak, erabakiak hartzerakoan pentsamendu kriti-koa gidatzat baliatzen dutenak, pertsona sortzaileak, inte-gratzaileak, pluralistak eta parte-hartzaileak, elkarrizketara irekiak. Eta, horri guztiari esker, bizitzako egoera aldako-rreri autonomiaz eta arduraz aurre egin eta, besteekin batera, nork bere bizi-proiektua eraikitzen dutenak.



# Nolako **pertsonak** hezi nahi ditugu?

## **PERTSONA KONPROMETITUAK**

Gizarte anitz eta global bateko kide aktibo gisa bizikidetzaz harmonikoago bat lortzeko eta gizarte justuago eta ekitatiboago bat eraikitzearekin: norberaren sentimenduak eta ideiak askatasunez modu asertiboan adierazi eta besteenak errespetuz entzun eta kontuan hartzen dituzten pertsonak; lankidetzan ikasi eta lan egiteko gai direnak; giza eskubideetan oinarritutako jarrera eta portaerak erakutsiz, gizarte-bizitzan eraginkortasunez eta modu konstruktiboan parte hartzen dutenak; elkartasuna baloretzat dutenak.

Naturaren kontserbazioarekin eta garapen jasangarriarekin: natura-ingurunean jokabide zabar eta kontsumistak dituzten ondorio globalez ohartzen diren pertsonak eta natura zaintzeko eta berari eusteko arduraz jokatzeko dutenak.



# Nolako **pertsonak** hezi nahi ditugu?



## PERTSONA EUSKALDUN ELEANITZAK


Euskal hizkuntza eta kulturaren erabilpen eraginkorra egin, garatu eta indartzen dutenak; euskal hizkuntza eta kultura erreferentzia-ardatz dutela, beste hizkuntza eta kulturekiko adeitasuna erakutsiz eta aniztasun hori norberarenaren osagarria gisa ulertuz, gizarte bizitzako egoera askotariko beharrei beste hizkuntzen erabilera eraginkorra egiten duten pertsonak.



# Nolako **pertsonak** hezi nahi ditugu?

## **PERTSONA KONPETENTEAK, EKINTZAILEAK**

Etengabe aldatzen ari den mundua ulertzeko eta mundu horretan eragiteko beharrezko ezagutzak, trebetasunak, jarrerak eta balioak eskuratuta dituzten pertsonak; bizitzan zehar izango dituzten erronkei irtenbide egokia emateko, ikasitakoak modu estrategikoan erabiltzen dakitenak; bizitzan zehar etengabe ikasten jarraitzeko oinarriak eskuratuta dituztenak.



## Zer dira kompetentziak?

Kompetentziak ez dira ikaskuntza-edukien barneratze soilaren emaitza.

Ekonomia Lankidetzaren eta Garapenerako Antolakundeak 2005an argitaratu emandako DeSeco proiektuaren arabera:

Testuinguru jakin bateko egoeraren eskaera konplexuei erantzuteko abilezia da kompetentzia, horretarako zenbait baliabide modu integratuan mobilizatuz (kognitiboak, prozedurazkoak eta emozionalak).

Kompetentzia eta egoera: bikote banaezina




## Konpetentzien araberako hezkuntzaren inplikazioak

### KONPETENTZIAK

- Egoera jakinetan landuz garatzen dira.
  - Egoera bakoitzak ezagutza eta trebetasun desberdinak baliatzea eskatzen du.
- Ekintzan ebaluatzen dira.
  - Buruz errepikatzea baino garrantzitsuagoa da erabiltzen erakustea eta jakitea.
    - Erabiltzen, aplikatzen ikasteak entrenamendua eta denbora eskatzen du.
  - Arlo bakoitzeko edukiak beharrezkoak dira, baina garrantzitsuena da ikasleak zer egiten duen eduki horiekin.
    - Ikasleek ikasitako edukiak beste egoera batzuetan aplikatzen jakitea eskatzen du.



## Orain arteko irakaskuntza- eta ikaskuntza- prozesua






**Zer ekarpen egiten du  
Konpetentzien araberako  
ereduaren baitan egindako  
diseinu horrek**





Nork bere bizi proiektua oinarri sendoekin eraikitzen duten pertsona buru irekiak,  
konprometituak, euskaldun eleanitzak eta kompetenteak hezteko...

## AUTO-ERREALIZAZIORA BIDERATUTAKO HEZKUNTZA-PROZESUA



eskatzen du

OINARRIZKO KONPETENTZIA GUZTIEN GARAPENA AHALBIDERATZEA

emaitza

## AUTO-ERREGULAZIOA

LANKIDETZARAKO TREBETASUNA

KOMUNIKAZIORAKO GAITASUNA

BIZITZAKO EGOEREI ERANTZUTEKO ABILEZIA

AUTONOMIA

AUTOESTIMU ETA AUTOKONTZEPTU DOITUA